



LEHIAKETAREN OINARRIAK

Gipuzkoako



Lehiaketa 2007-2008



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social





LEHIAKETAREN OINARRIAK
GIPUZKOAKO GAZTE FORUM 2.007-2.008

Hezizerb elkarteak, **GIPUZKOAKO GAZTE FORUM 2.007** lehiaketaren antolatzailea da eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak finantzatzen du, Gipuzkoako lurralderaino zabaltzen delarik.

Proiektuaren sintesia.

Gazteleku eta kale heziketa programetako **hezitzaileek** (edo gazteei zuzenduriko beste gizarte hezitzaileek), askotan, gazteen artean talde-egoera kezkarriak **ikusten** dituzte, bere zaugarritasunarengatik, hauskortasunarengatik, arrisku egoeragatik, erakusten dituzten jokaerengatik, euren artean edo/eta ingurunearekin erlazionatzeko moduarengatik,... Baina era berean hezitzaileek, **lagun-taldea** ezinbestekoa dela uste dute, garapen pertsonalerako **funtssezko osagaiak** dauzka, gazteei hauek ezagutzen eta sustatzen laguntzea baino ez da behar.

Maiz, aitzakia bat besterik ez da behar izaten hezitzaile-gazte harreman maila batean sartu eta euren egoeraren kanpo ikuspegi bat eskaini eta positiboa, eraikitzailea, aberasten dituen eta euren helzte prozesuan lagungarria den konnotazio bat ematea.

Gazte Forum egitasmoak pertsona zein lagun taldearen inguruan hausnartzeko aukera eskaini nahi du: pertsonarteko harremanak, talde baloreak, lagun taldearen ahalmenak, talde presioa, arriskuak...

Bizipeneko prozesu burutsu baten ostean, talde hausnarketa horrekin, ikus-entzunezko muntai bat sortzea da asmoa (film-laburra, dokumentala, bideo-klipa, fotomuntaiak...), honek, beste gazteentzat eta orokorrean biztanleriarentzat esportagarria den mezu bat bilduko duelarik.

Gakoa, **eurengan hitz egin eta hausnartzean datza**, euren taldea, kezkak, zailtasunak, indarguneak,... ez ordea arrotza zaien gai bati ekitea.

Izena eman duten programa guztien artean eta bideo-muntai horrekin, **lehiaketa** batean parte hartuko dute. Bestalde partaideek hezitzaile eta teknikariekin batera, irabazlearen hautaketan parte hartuko dute elkargune jardunaldi batean.

Produktuak hartzaile ezberdinentzako herri eta lurralde mailan zabalduko dira: ikastetxeak, gurasoak, gazteei irekita, teknikari eta politikariei, komunitateari... hala ulertu ezker.

Lan guztiekin (edota aukeratutakoekin) euren hedapenerako DVD/CD bat egingo da.

Programa partehartzaileak.

Gipuzkoako ingurune irekiko gizarte esku-hartze programek eta "Gazteleku" moduko azpiegiturek parte hartzerik izango dute, edota bestelako gizarte-heziketa programek hala ulertu ezker.

Hezitzaile talde hauek lehiaketan parte hartzeko talde bat aukeratu beharko dute.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social





Gazteen taldeak

Parte hartuko luketen gazteen taldeak honakoak lirateke

- Gipuzkoako 13 eta 17 urte bitarteko eta gazteleku moduko egitura, kale heziketako programen edota bestelako egitura gizarte-komunitarioen erabiltzaileak diren nerabeak.
- Taldekide kopurua: Gutxienez 4 pertsona, gehienez 10.

Programaren helburuak

OROKORRAK	ZEHATZAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Pertsonen artean eraiki daitezkeen harreman mota ezberdinez kontzientzia hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➔ Maila pertsonalean pertsonarteko harremanen garapenerako potentzialtasun eta ahulguneaz jabetzea. ➔ Begikotasun, kidetasun, laguntasun... harremanen artean ezberdintzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Talde harremanetan gako diren gai zehatzen inguruko ezagupenak lortzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➔ Pertsonarteko laguntza motak, talde presioa, etiketazioa... identifikatzea. ➔ Gizarte abileziak garatzea. ➔ Enpatiarako gaitasuna garatzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Taldearen barne harremanak indartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➔ Taldearen berezko baloreak, potentzialtasunak, arriskuak eta zailtasunak aurkitzea. ➔ Partaidetasunaren sendotzea erraztea (bereziki tankera ahulagoa duten taldekideengan)

Oinarrizko kronograma

Azaroa 2007	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Difusioa ▪ Aurkezpen saioa ▪ Izen emateak
Abendua 2007	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 1. formazio saioa, koordinazioa, jarraipena ▪ Taldeen aukeraketa ▪ Taldeen proposamena
Urtarrila 2008	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Taldeekin hausnarketa-esperientzia prozesua
Otsaila 2008	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Taldeekin hausnarketa-esperientzia prozesua ▪ 2.formazioa saioa: ikus-entzunezko muntaia, jarraipen saioa
Martxo 2008	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hausnarketa-esperientzia prozesuen itxiera ▪ Bideometrai eta gidioen egitea
Apirila 2008	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bideometrai eta gidioen egitea
Maiatza 2008	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lanen aurkezpena (maiatzaren 9a baino lehen) ▪ Lehiaketa-ekitaldi saioa. (maiatzaren 31a)
Ekaina 2008	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Saritutako lanen hedapena ▪ Amaierako ebaluaketa saioa ▪ Talde sariak
Uztaila-Abuztua-Iraila 2008	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Talde sariak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social





Baldintzak

Prozesuak parte hartuko duten hezitzaile talde, erakunde edota hala balitz, Udalengandik jarraian agertzen diren alderdiak dakartza:

- Formazio, jarraipen eta ebaluaketa saioetan parte hartzea.
- Lanaren garapena gazte taldearekin: aukeraketa, proposamena, negoziazioa, talde dinamikak, hausnarketa, gidoiaren eraketa, muntaiaren eraketa, prozesuaren memoria txiki baten egitea, herri mailako hedapena. (hezitzailea, erakundea, udala).
- Beharrezkoak liratekeen azpiegiturak edukitzea: talde dinamikentzako gela, ordenagailua, bideo kamera (antolakuntzak bi jarriko ditu partehartzaileen erabilpenerako), CD-DVDak... (erakundea, udala).
- Prozesuaren amaieran proiektuan parte hartu duen taldearekin burutuko litzatekeen irteera baterako oinarizko aurrekontua edukitzea. (aukerazkoa).(erakundea, udala)
- Lehiaketaren oinarriak onartzea.

Sariak eta epaimahaia

Hiru sari ezarriko dira:

Lehen saria: Garaikurra, diplomak, lan hobereenez osaturiko CDa eta 600€ko ekintza txartela.

Bigarren saria: Garaikurra, diplomak, lan hobereenez osaturiko CDa eta 300€ko ekintza txartela

Hirugarren saria: Garaikurra, diplomak, lan hobereenez osaturiko CDa eta 200€ko ekintza txartela

Epaimahaiaren osatzea

1. Fasea: epaimahai teknikoaren puntuaketa

- Aldundiko teknikari arduradun 1
- Arduradun politiko 1
- Bulego teknikoa 1
- Arlo artistikoko pertsona 1
- Hezitzaile 1
- Antolatzaile 1

2. Fasea: Lehiaketa ekitaldi saioa

- Parte hartzaileen hezitzaile taldeak
- Gazteen taldeak
- 1. saioko puntuazioen batura

Irizpideak:

- Eduki-mezuaren balidezia.
- Talde prozesuaren intentsitatea.
- Amaierako produktuaren kalitatea.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social





Gaia

Parte hartzaileek jorratu beharko duten gaia "TALDEA" da, taldea lagun talde, koadrila... gisara ulerturik.

Gure ustez, gatazka edo zailtasun orok aukera bat eskaintzen du. TALDEA, LAGUNAK, balore bat da, ordezkazina den ondasuna, funtsezko zerbait. Nerabeei balore hori aurkitzen laguntzea garrantzitsua da, taldearen arriskuak identifikatzen eta kudeatzen eta euren gizarte bizitza garatzeko maila pertsonalean dituzten ahultasun eta indargunez ohartaraztea. Eta honakoa euren baloreen (talde gisara dituztenak) promozio gisa aurkeztea efektiboago da, euren alderdi positiboetatik talde identitatearen eraikuntza gaketzat harturik, honek pertsona zein talde bezala kontziente zein inkontzienteki laguntzen ez dieten talde dinamikaren elementu horiek identifikatzeari garrantzirik ken ez diezaion.

Proiektu honek forma bat eskaini nahi du, esparru honetan "nola" laguntzeko modu bat, aldi berean erakargarria eta intentsitatezkoa den prozesu pertsonal, taldeko eta taldeaz gaindiko batean parte hartzea erraztuz.

Garrantzitsuena euren buruengan hausnartzea da, euren talde zein errealitate pertsonalean. Lagun talde orokor batez hitz egiteaz ez datza, kontrakoa bai ordea, talde zein talde hori osatzen duten taldekide gisa dituzten ahultasun eta indarguneen gaineko begirada bat botatzea, gizarte testuinguru handiago batean.

Haunarketa-esperientiazkoa den lan honetan erabilgarriak izan daitezkeen dinamiken gidoiak emango dira zeinak, egokituak, trukatuak zein aldatuak izan daitezkeen hezitzaile eta taldearen errealitatearen arabera.

Lan-produktuak

Behin hausnarketa-esperientzia prozesua amaituta partehartzaileek talde prozesua eta garatutako lana deskribatzen duen memoria txiki bat eman beharko dute. Lan hori burutzeko *memoria gidoia emango da*.

Era berean, CD-DVD batean entregatu beharko da bideomuntaia. Lana ohiko DVD edota software berezirik behar ez duen ordenagailu batean irakur daitezkeen formatuan grabatua beharko du

Muntaiak erabilpen errazekoak diren eta *windows XP* softwarean aurkitu daitezkeen power point edo *"movie maker"* programekin egitea gomendatzen da, edota ohiko kamerek dakartzaten softwareekin. Antolakuntzak programa hauen erabilpenerako formazio jakin bat emango du eta muntaia egiten den bitartean dudak galdetzerik izango da.

Bideomuntaiek ez dute 10 minutuko luzera gainditzerik izango

Lanik esanguratsuenekin doako hedapenerako CD-DVD bat osatuko da. Arrazoi honengatik, antolakuntzak lanak erakusteko eskubidea gordeko du betiere lan horien jatorria zein den azalduz.

Hizkuntza

Euskaraz izatea hobetsiko da. Hala ez bada argudiatu beharko da.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social





Aholkularitza

Antolakuntzak hiru mailatako aholkularitza emango du prozesu guztian zehar

- Lehiaketaren funtzionamendu, lan tresna eta dokumentazioarekin zerikusia duten gaietan.
- Taldeekin garatu beharreko esperientzia eta hausnarketarako dinamikekin zerikusia duten gaietan.
- Bideomuntaiekin zerikusia duten gaietan (aholkularitza teknikoa).

Aholkularitza noiz eskainiko da:

- Jarraipen eta formazio saioetan
- Modu pertsonalizatuan, lehiaketaren arduradun diren teknikariek telefono bidez: 943 32 67 84 edota posta elektronikoko bidez: gf@gazteforum.net. Hala behar balitz hitzorduak eskainiko dira gai hauek modu pertsonalean konpontzeko.

Material erabilgarria

Antolakuntzak parte hartzaileen erabilpenerako 2 bideo kamera digital jarriko ditu. Horiek erabiltzeko eskaera burutu beharko da.

Lanen ematea

Lanak emateko azken eguna 2008ko maiatzaren 9a izango da.

Bideomuntaia CD-DVD batean eman beharko da eta eskatutako dokumentazioa (prozesuaren memoria eta banatuko diren beste hainbat).

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauen onspena dakar.

ASJ/G/04273/1994
CIF: G20474979

Zubiaurre 30, behea
20013 • Donostia
Telf. 943 32 67 84
Fax. 943 32 67 85
www.hezizerb.net
hezizerb@hezizerb.net

www.gazteforum.net
gf@gazteforum.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social

